


Lekualdatzeko beharra

Irati Majuelo

Liburu berria argitaratu du Castillo Suarezek, poz txiki bat gure literaturarentzat, poz handi bat poeta modura egin duen ibilbide oparora maite dutenentzat. Sarrera labur batekin abiatzen da, hitz lauz, eta, hala, prosa poetikoaren bidez eraikitzen du idazleak poema bildumaren unibertsoa, testura, giroa. Lekualdatzen ari den emakume bat aurkezten du, harreman bat eten ostean desamodioak eta lagunengalerak mugituko emakume bat, lotara logelatik gonbidatuengelara joan den emakume bat, ametsak ere eraldatuko zaizkiolakoan. Orain inguruan ez dituen horiek noizbait egindako opariak, utzitako objektuak, bidalitako mezuak daude pasabidean, berea ez den etxean. Baina gorde egiten ditu, izan ere, «objektuetatik aldentzea litzateke onartzea inor ez dela haien bila itzuliko». Sarrerak iragartzen duenez,

sinbologia handiko lana da hau, emozio sakonak (galera, mina, arroztea) elementu indartsuekin lotzen dituena (armairuetako hutsuneak, zentral nuklearretako loreak, eukalpto suteak, adibidez). Izenburutik bertatik gertatzen da hori agerian, Alaska, errepide ertzean abandonatutako hotela, galdutako espazioen sinbologia baita, ikusi aldiro iraga-



'Alaska'

Idazlea: Castillo Suarez.
Argitaletxea: Elkar.

neko memoriak biziberritzen dituen eraikin hustua. Idazlea lehenagotik ezagutzen ez duenarentzat, harridura sortuko du bere idazkerak, eta intentsitate handiko irudiak pare pare lehertzen zaizkiola irudituko zaio. Aurretik irakurria badu, ordea, bide ezagunetan murgilduko da, baso arroteko errepideetan, jakinik egongo direla ustekabe hartuko duten lerroarteak.

Izan ere, ohikoak dira Suarezek lan honetan darabiltzan gai eta irudiak, bere ibilbidean sarri erabili dituenak eta, azkenerako, bere poesian bereizgarri bilakatu direnak. Oihartzun berezia egiten du *Irautera* aurreko liburuarekin, *continuum* berean sortutako lanak balira bezala. Partekatzen dituzte irudi indartsuak sortzeko elementuak (elurra, galdutako behorak eta animalia zaurituak, suteak, izozteak, basoa, euripean gidatzen duten autoak), eta partekatzen gai nagusiak ere (galera, hutsunea, dolua, antzutasuna, maitasuna, eta horiei aurre egiteko erresilientzia). Oro har, ideia batek zeharkatzen ditu poemak; hots, min ematen duenak eraldaketa dakarrela, mugitzeko beharra. Hori dela eta, liburua minak eta iluntasunak giroten badute ere, ez da etsipena elikatzen, ez-

pada eusteko aldarria. *Irautera*-n zion gisan: «Nire poemak ez dira egundaino errendizio-ikur izan».

Liburuaren egiturari dagokionez, ez du eskema zehatzik, ez dago kapitulutan banatua, eta hasiera batean Alaskaren inguruan bizi den neskaren istorioa aurkezten bada ere, gero ez zaio hari horri jarraitzen espliziturik ematen. Hortaz, liburuak ez du garapen argi bat, poemak ordenarik gabe irakur daitezke, elurraren gisara metatzen diren ma-lutak baitira, bakoitza bakarra baina beste guztien antzekoa. Idazkera soilari eusten dio Suarezek, esaldi labur eta zorrotzen bidez. Horrek erritmoa zatikatua izatea eragiten du sarri, poema barnean etenuneak baleude bezala. Alde horretatik, lerroarteko hutsuneak eta isiltasunak garrantzi handia hartzen dute, askotan hor baitago poema bera. Hala ere, zenbaitetan zerbitz gaitzen da hor, efektismorantz egiten baitu isiltasun erabilera sarriak, irudi indartsu edo lehegailu gisara funtzionatzen duten esaldiak sortuz, baina elkarrekin josi gabe. Muinera jotzean, ordea, hondamendiaren ederra agerian jartzeko balio badu poesiak, helburua lortu du poetak, zalantzarik gabe.

Ekaitza bezain gorri

eskumena izan liteke, baina ez irakurleena».

Hala ere, oihartzun handiagoa izan dute saiakerek: *Kultura lazi* (Gezurren kultura, 1996), *Zabranjeno citanje* (Eskerrik asko ez irakurtzeagatik, 2001), *Nikog nema doma* (Ez dago inor etxean, 2005) eta *Karaoke kultura* (2010) lanek, besteak beste.

Ugresicek asko kritikatu izan zuen literaturaren nazio sistema, haren hitzetan, Eurovision lehaketaren antzera funtzionatzen duena, herrialde bakoitzari ordezkari bat izateko aukera emanez. Honela azaldu zuen BERRIAKO elkarrizketan: «Neurri batean kolonialismoaren legeekin funtzionatzen du literaturak, literatura unibertsala literatura dominantea baita, amerikar ingeles literatura, hurrupatzen ditu leku exotikoetako idazleak bere mesederako. Emakume islamiar bat behar dugu, ados, etorri eta idatzi nobela batean zenbat ari zaren sufitzen Teheranen».

Desegindako herrialde bateko erbestean, literaturaren lurrean zegoen Ugresic, inon egotekotan: «Ez dut inoren parte izan nahi, nire irakurleen parte ez bada».

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Zaile egiten da erabakitzea nondik hasi liburu honetaz hitz egiten. Bere laburrean 88 orrialde ditu –aurkibidekoa eta guzti–, hiru ataletan partituta; irakurraldi bakarreen hasi eta bukatzeko modukoa, beraz. Baina hainbeste albo-kontu ditu, hainbeste zer pentsaturekin topatzen gara bidean, irakurraldia digestio luzeko betekada bihurtu zaidala.

Bereket deitzen da narratzailea, azalpenak ongi ulertu badituzten Parisen hazitako emakume etiopiar umezurtza dena, glaziologia pasio eta ogibide dituena, eta zorriko hilotz topaketa batek bul-tzatuta, istorio honen muinean

dagoen gertakari lazgarria kontatuko diguna.

Kontakizunaren egituraketa forma zentripeto batean dago eraikia. Hau da, kanpoko inguruetatik abiatzen da, Bereketek eta haren lagunak Tsanfleuron glaziariaren aurkitzen dituzten (des)izoztutako hiru hilotzekin,



'Zerria'

Idazlea: Patxi Zubizarreta. **Ilustratzailea:** Antton Olariaga. **Argitaletxea:** Erein.

segitzen du polizia-ikerketaren antz handia duen teknika batekin egieren bila, eta gero eta indar handiagoz erdiko muinera eramango gaitu, nahasmenduz, fikzioaren edo benetakotasunaren eremu gabiltzan jakin gabe, amaierako hunkidura onera iritsi arte.

Liburua hiru ataletan banatuta eskaini izana egitura horri bidea emateko teknika dela pentsa daiteke. Lehen atalean kronika sasierrealista dirudiena eskaintzen zaigu, zeinetan bi pertsonaren eta hartz baten gorpuak topatzen dituzten hainbat objektuekin, tartean Duvoisin Kapitainak euskaratutako ebanjelioa, 1859an Londresen inprimatua, eta mezu sekretu bat ezkutatzen duela dirudien azpimarrak dituena. Segidako ikerketan izotzetan harrapatuta hil ziren bi heldu haiek ihesean zihoazela dirudi, euren semetxo *zerri* batek hil ostean, Harane deitzen den Zuberako herrixka batean, 1886 aldera.

Bigarren atalean ikerketak gertakariaren garaiko prentsatik tirak egiten du hurbilpena, kronika hanpatu batekin, zeinetan haur bat hiltzeagatik zerri bat epaitua eta zigortua nola izan zen deskri-

batzen den, eta ondoren Junes Casenave-Harigileri egindako elkarrizketa faltsu bat dator, kon-taketa jada fikzioa erabat eramanez, kronika gero eta gordina-goa bihurtzen duten datuekin. Bide batez, komeni da gogoraztea tarteka animaliei eragindako krudelkerien pasarteak daudela, tonuaren gordintasuna ahaztu ez dezagun edo.

Hirugarren eta azken atala jada errukiaren, desolazioaren eta superlatiboen eremua da. Egiatik inoiz zerbitz izan den galdetzen diogu enagarren aldiz gure buruari, gero eta tristeagoa den ibilbidea jarraitzen, bikotea jada La Troupe Francescan doala, Belphegor zeritzan hartz errukarria eurekin kateatuta, aita santuari justizia eskatzea buruan besterik ez dutela. Azken atal labur honetan aldarrikapen soziala da nagusi, liburu hau gizartearen bazterretan alderriak ibiltzen diren pertsonen omenez eskainiko balu bezala.

Liburuak artisaun lanaren itxura hartu duela iruditzen zait, agerikoa, pieza bakoitza besteetatik bereizteko modukoa, inperfektua bezain ederra, bakarra eta saillakaezina.